

# Ahots bi eta hasiera bat

**Yolanda Arrieta**

## ARKATZA

—Nor naiz? —galdetu diot neure buruari, pote barruan, txiki, boligrafoz inguratuta.

Badirudi nire jabeak entzun egin didala. Hiztegia hartu eta «arkatz» bilatzen hasi da. Arkatzak «lapitz» hitzera eraman du. Nire ondoko boligrafo urdina hartu eta koadernoan idatzi du:

Arkatza edo lapitza: grafitozko maki-latxo mehe bat duen egurrezko zotz modukoa, idazteko edo marrazteko erabiltzen dena.

Nire jabeak boligrafo urdinari tapa jarri dio, beti bezala, eta lehengo lekuan utzi du, alegia, neure ondo-ondoan. Epa!

—Jon! Bukatu dituzu etxeko lanak? —galdetu dio amak kaleko atetik-. Aitor etorri da!

—Bai! Banoa! —eta Jonek korrika alde egin du gelatik, koaderno mahai gainean, zabal-zabal, utzita.

Egurrezko zotz modukoa, idazteko edo marrazteko erabiltzen dena. Horixe omen naiz ni.

Ba, bai. Zuek nahi duzuen esango duzue, baina, hiztegiak zer naizen kontatzen du bakarrik. Ez, ordea, nor naizen, alegia, non jaio nintzen, zer dudan gustukoen, zerk amorrarazten nauen, zerk eragiten didan barre, zerk negar, zerk elikatzen nauen, zerk eragiten didan tripako mina, zer egiten dudan bakarrik nagoenean, zer izatea gustatuko litzaidakeen...

—Noski—, esan dit borragomak, pote ertzetik-. Hori guztia ezin du hiztegiak jakin, hori gauza pertsonala delako eta zu, ni bezala, ez zarelako pertsona, gauza, baizik.

Ai! Batzuetan nire onetik ateratzen nau sasi andereño honek. Dena ezabatzen, dena ezabatzen, azkenean irudime-

nik gabe geratu da, gaixoa, eta ez da enteratzen.

—«Gauza», «gauza...»! Eta zer? Ez al dut eskubiderik pertsona bat bezala jokatzeke? Beraiek ez al dira ba gauza bihurtzen komeni zaienean?

Borragomak bere aurpegi ezabatuarekin begiratu dit.

—E?

—Bai, neska! —inauterietan, edo antzerkia egiten dutenean, edo, edo... edo ipuin bat asmatzen dutenean! Orduan ez dute beraiek gure itxura hartzen, ala?

Borragomak, une batez, neuri begira jarraitu du, ez jakin, erantzun egoki bila ala galdera berri bat asmatu nahirik.

—Aaaa! —esan dit halako batean—. Baina hori...

—Hori, zer? —galdetu diot, punta zorrotz.

—Ba, horixe. Hori jolasean egiten dute, ez benetan.

Eta gure borragomatxoa lasai geratu da munduko aurkikuntzarik handiena egin izan balu bezala.

Zuzen begiratu diot, txiki, baina tente. Zerbait esatekotan egon naiz, baina, azkenean ez diot ezer erantzun.

Orduak eta orduak pasatu dira, arratsalde oso bat. Bat batean, etxeko txikiena gelan sartu eta nebaren aulkian eseri da. Mahai gaineko argitxoa piztu eta boligrafoen potea irauli du. Han joan gara denok hankaz gora, boligrafo gorria, berdea, beltza, erregela, rotuladore horria, pintura arrosa eta denok, mahai gainera. Jonen arreba txikiak pozik begiratu digu. Nebaren koaderno gainean jarri gaitu denak, ilaran, bata bestearen ondoran, hitz hauen konpasean:

—Gorriak sua piztu, berdeak belarra erein, beltzak horma marraztu eta erregelak atea egin, rotuladoreak eguzkia margotu, pinturak lorea pintatu eta ar-

katz txikito polit honek izena jarri: AMAIA.

Neskatilak aukera handia zeukan bere izena idazteko, baina neu aukeratu nau.

Ez naiz gehiago kexatuko, ez. Arkatza edo lapitza izateak badu bere alde ona. Umeek asko-asko maite naute; batez ere, txikienek. Zirriborroak eginez ezagutzen naute eta, halako batean, izen bat dutela deskubritzen dute: AMAIA

—Zer, zer, zertan...? —galdetu du etxeko txikiaren nebak gelan sartzean—. Ama! —egin du oihu, koadernoari begira—. Amaiak bere izena jarri du nire etxeko lanen gainean!

Amaiak Jonen hanka artetik ihes egin du pasilorantz.

Zer goxo egoten den bere golkoan!

## BORRAGOMA

Ai! Zer triste nagoen Arkatz Txikik alde egin duenetik. Inork ez dit jaramonik egiten. Lehen, behintzat, gure nagusi Jonek, tarteka, Matematikako emaitzen bat aldatzeko edo hartzen ninduen.

—Zorro batean hiru pilota daude. Bederatzi zorro erosten baditut zenbat pilotaren jabe egingo naiz? —irakurtzen zuen, ozenki.

—Hamazortzi —esaten zuen, ziur, eta 18 handi bat idazten zuen liburuan.

Gero, noski, aita etortzen zen zuzentzera.

—Jon, zer jarri duzu hemen?

—Hamazortzi —erantzuten zuen Jonek, ziur.

—Bai. Baina, ondo dago?

—Horixe! Zer ba?

Orduan, aitak hasperen egin, eta nire bila hasten zen, antsia handiz. Hatz potoloaz eta erdikoaz hartzen ninduen eta, tiri-tara, erabiltzen Jonen 18 handia ezabatzeke. Jon aitari so gelditzen zen,

